



Alegiako
Udala

**KULTUR ETXEKO INSTALAKUNTZAK
ERABILTZEKO ARAUEN GIDA**

Dokumentu honetan kultur etxeko instalakuntza ezberdinak erabili ahal izateko baldintzei buruzko informazioa duzu. Protokolo gehiago zehaztu ahala, dokumentua eguneratuko da.

KULTUR ETXEKO GELAK ERABILI AHAL IZATEKO BALDINTZAK

-Eskaera:

Gela erabili nahi duen edonork eskaera egin beharko du 943 65 46 98 telefono zenbakira edo kultura@alegia.eus helbidera idatzita. Eskaera egiten denean, ekintzaren ordutegia zehaztu beharko da. Kultur etxetik eskaera konfirmatu arte, guztia behin behinekoa izango da.

-Arduraduna:

Gela bat erabiltzeko eskaera egiten duen norbanako edo talde orok 18 urtetik gorako pertsona bat izendatuko du arduradun modura. 18 urtetik beherako pertsonen kasuan, guraso edo adinez nagusi den arduradunen bat izendatu beharko da. Pertsona horren erantzukizuna izango da zehaztutako baldintzak betetzen direla ziurtatzea. Gela horretara sartuko diren pertsona guztien izen abizenak eta kontakturako telefono bat jaso beharko ditu arduradunak erregistro orri batean. Orri horiek kultur etxeko sarreran hartu ahal izango dira eta irteeran bertan utzi beharko dira.

-Baldintzak:

+Sarrera

- Erabiliko den gelara sartuko diren pertsona guztiei kultur etxeko sarreran sukarra hartuko zaie.
- Erabiliko den gelara sartuko diren pertsona guztiek kultur etxeko sarreran eskuak desinfektatuko dituzte, bertan egongo den gelarekin.
- Erabiliko den gelara sartuko diren pertsona guztiek maskarila jarrita izango dute une oro, kultur etxean dauden denbora guztian.
- Erabiliko den gelara sartuko diren pertsona guztiak jarduera garatuko den gelara bideratu lurreko markak jarraituz.
- Erabiliko den gelara sartuko den norbaitek sukarra baldin badu etxera bidali. Haurren kasuan, gurasoei deitu bila joateko.

+Irteera

- Jarduera garatuko den gelan erabilitako material guztia desinfektatu.
- Jardueran parte hartu duten pertsona guztiak irteerara bideratu lurreko markak jarraituz eta irtendakoan bertan ez geratzeko esan, pilaketak ekiditeko.
- Aretoan izan diren pertsona guztien izen-abizenak eta telefonoak biltzen dituen orria sarreran utzi.

***Indarrean dagoen araudiak zehaztutako segurtasun neurriak betetzea eta ekitaldian parte hartuko duten pertsonen betearaztea arduradunaren erantzukizuna izango da.**



Alegiako
Udala

**KULTUR ETXEAN EKINTZAK GARATUKO DITUZTEN TALDEETAKO
ERABILTZAILEEK KONTUAN IZAN BEHARREKO NEURRIAK**

-Sarrera:

Taldeko arduradunari kultur etxeko sarreran itxarongo zaio. Etortzen denean, sukarra hartuko digu eta sarreran dagoen gelarekin eskuak desinfektatu behar dira. Kultur etxera sartzeko derrigorrezkoa izango da maskarila erabiltzea. Jarduera garatuko den gelara arduradunarekin sartuko gara, lurreko markak jarraituz.

-Irteera:

Saioa amaitu aurretik erabilitako materiala desinfektatuko da eskura izango diren produktuekin. Kultur etxetik ateratzeko, arduradunarekin joango gara talde osoa, lurreko markak jarraituz. Kultur etxetik ateratakoan ez geratu irteeran, pilaketak ekiditeko.

-Erabiltzaileen egitekoak:

- Taldeko arduraduna etorri arte kultur etxeko atarian egon. Pilaketak ekidin.
- Maskarila jarrita izan eta sarreran eskuak desinfektatu.
- Arduradunarekin jarduera garatuko den gelara joan, lurreko markak jarraituz.
- Saioa amaitu aurretik, erabilitako materiala desinfektatu.
- Arduradunarekin irteerara joan, lurreko markak jarraituz.
- Ateratakoan ez geratu bertan, pilaketak ekiditeko.
- Norbaitek COVID-19aren sintomaren bat baldin badu, ez joan kultur etxera.
- Norbaitek COVID-19arekin positibo emango balu, arduradunari jakinarazi berehala.

GINNASIOA ERABILTZEKO NEURRIAK

Aurrez hitzordua hartu behar da

943 65 46 98 telefonora deitu behar da 10:00etatik 13:00erako ordutegian edo kultura@alegia.eus helbidera idatzi ordua hartzeko. Hitzorduak hartzeko, erabili nahi den astearen aurreko asteko ostegunera bitarteko epea egongo da. Hitzordua hartzea derrigorrezkoa izango da.

Gimnasioaren ordutegia

Astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara egongo da erabilgarri. Kultur etxeko sarrera nagusitik sartu eta atera beharko da eta erabiltzaileak harrerako arduradunari jakinarazi beharko dio iritsi dela. Identifikazio dokumenturen bat eraman beharko da.

Txandak eta desinfekzioa

Ordubeteko txandak izango dira eta aldiko gehienez lau pertsona egongo dira. Hasiera batean ez da asteko ordu kopuru mugarik jarriko baina egiten diren erreserbak aurreko asteko ostiralean konfirmatuko dira. Helburua ahalik eta erabiltzaile gehienek gimnasioa erabiltzeko aukera izatea da.

Segurtasun neurriengatik gimnasioko material guztia ez da erabilgarri egongo.

Saio bakoitzeko azken hamar minutuetan erabiltzaileek erabilitako makinak desinfektatu beharko dituzte eskura izango dituzten produktuekin.

Segurtasun eta higiene neurriak

-Ur botilak, izerdia lehertzeko eskuoihalak... norberak bereak eraman eta erabili beharko ditu.

-Gutxienez bi eskuoihal eraman beharko dira. Bat izerdia kentzeko eta bestea makinetan erabiltzeko, beharko balitz.

-Kaleko oinetakoekin sartzeari debekatuta dago. Gimnasia sartzera sartzerakoan oinetakoak aldatu behar dira.

-Aldagelak itxita egongo dira.

-Kultur etxera sartzeko maskarila derrigorrezkoa izango da.

Nork erabili dezake?

-Bazkideek lehentasuna dute.

-Eguneko sarrera ordaintzen duten erabiltzaileek ere erabili dezakete.

*Egoera honek irauten duen bitartean ez da hilabeteko bonorik egingo.

***COVID-19aren sintomaren bat baldin baduzu, ez joan gimnasia.**



Alegiako
Udala

LIBURUTEGIA ERABILTZEKO NEURRIAK

-Liburuak maileguan hartzeko 943 65 04 92 telefono zenbakira deitu 17:00etatik 19:00etara edo liburutegia@alegia.eus helbidera idatzi. Liburutegian liburuak begiratzeko eta hautatzeko aukera izango da.

-Liburutegiko gelak erabiltzeko aurrez hitzordua hartu behar da. 12 urtetik beherako pertsonen kasuan, guraso edo adinez nagusi den arduradunen batek egin behar du eskaera.

+943 65 04 92 telefono zenbakira deitu 17:00etatik 19:00etara edo liburutegia@alegia.eus helbidera idatzi ordua hartzeko.

+Ordu tarte hauek eskainiko dira: 16:30-17:30 // 17:30-18:30 // 18:30-19:30.

+Gela bakoitzeko gehienezko edukiera honako hau da:

- ✓ Liburutegi handia: 10 pertsona
- ✓ Liburutegi txikian: 10 pertsona

- 12 urtetik beherako haurrek heldu batekin joan beharko dute.

- Kultur etxean sartzeko derrigorrezkoa da maskarila.

- Sartzerakoan:

- Sukarra hartu.
- Eskuak gelarekin garbitu.
- Seinaleak jarraituz liburutegira abiatu.

***COVID-19aren sintomaren bat baldin baduzu, ez joan liburutegira.**